276. zk.
Bigarren aroa
Maiatzak 1
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Txalaparta Eguna Meaka auzoan

7. orrialdean

Kirolak
Erlaitz-Aiako Harria mendi lasterketa.

9. orrialdean

3 Elkarrizketa Noelia Lorenzo, idazlea.
4-5 Elkarrizketa Jose Luis Treku, Oskarbi taldeko kantaria.
8 Kirolak Bidasoa Itzulia.
10 Kolaborazioa Gorka Martinez. Aitzondo eta Meazuri ur-jauziak.
11 Haurren Leihoa Elatzeta HH.
12 Gazteen Lanak Toki Alai LH3
13 Gaztea Irun Rock
14 Gazte infor
15 Agenda

Argazki lehiaketa

Estibaliz Zubialde
Arbasoen sustraiak.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 42628

Elizatxo hiribidea

Artaleku kalea eta Gipuzkoa hiribidea lotzen diren puntuan hasten da Elizatxo hiribidea. 1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran Uranzu Koalizio Independentearen eskariz jarri zioten izena.

Elizatxo izena ematen diote herritarrek kalearen inguruko eremu osoari, Lapitze auzoan eliza edo ermita txiki bat egon zelako. Hori baita Elizatxo izenak esan nahi duena. Luis de Uranzuk dioenez, Elizatxoko Kristo Santuaren basilikari dagokio.

Hala ere, 1858ko zerrendan "Carretera para España" izenarekin agertzen da, izan ere, herri barnean egonik, Penintsula osoarekin lotura gisa balio zuen bide bat zelako, zalantzarik gabe.

Mende osoan zehar izen ezberdinak eman badizkiote ere, 1962ko abuztuaren 8an "Avenida de Madrid" izena ofiziala jarri zioten, N-1 errepidea handik pasatzen zelako. Alegia, Espainiako hiriburutik Frantziako mugara zeraman bidea.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

“Irakurlea harrapatzeko gaitasun handia du nobela beltzak”

Loraldia bizi du nobela beltzak azken urteotan. Neurri batean Dolores Redondoren Baztango trilogiaren arrakastaren eraginez. Alabaina, argitaletxe eta komunikabide handien oihartzunetik urrun ere, badira generoko idazleak Euskal Herrian. Hamarnaka urte eta liburu daramatzate batzuek, ospearen gozoa dastatu gabe. Noelia Lorenzok hirugarren eleberria argitaratuko du udara baino lehen. *Chamusquina* izan zen irundarraren debuta, Dauro Ediciones argitaletxe txikiarekin. *La sirena roja* Ereinekin plazaratu zuen, eta beste hainbat ate ireki zizkion. Hura argitaratu eta urte bete eskasera, prest dauka hirugarren lana, *La chica olvidada* izenekoa. Irun hiria eta haren inguruak hautatu ditu beti Lorenzok eleberrietako eszenatokietarako.

NOELIA LORENZO PINO

Irakurle izan zinen, idazle bilakatu aurretik?
Bai, eta nobela beltza irakurri izan dut beti, gainera. Berandu hasi nintzen, eskolako irakurketa derrigortuak ez zitzaizkidalako batere gustatzen. Beranduago, lagun baten gomendioz hasi nintzen genero beltza irakurtzen, eta harrapatu ninduen. Ikaragarria izan zen, obsesibo samarra. Hilabetean bizpahiru liburu irakurtzen nituen. Nobela nordikoaren eztandaren garaian hasi nintzen, beraz, autore horiek izan ziren nire lehen erreferentziak.

Idazten ere aldi berean hasi zinen?
Txikitatik idazten nuen, egia esan. Olerkia eta ipuinak, behintzat. Gero antzerki tailer batean egon nintzen, eta obra baten gidoia idatzi nuen lagun batekin. Beranduago, *Chamusquina* nire lehen eleberriari heldu nion. Erdizka nuela, nobela beltzeko ikastaro batean izena eman nuen. Intentsiboa izan zen, eta asko ikasi nuen. Ikastaroa bukatu nuenean, Chamusquina berridatzi nuen, ikasitako guztia aplikatuta. Balio izan didaten gako asko eman zizkidan, egia esan.

Bukatu zenuenean, argitaletxeetara bidaltzeko konfiantza eduki zenuen.
Nire ingurukoek irakurri zuten. Senarrak eta lagunek asko animatu ninduten. Niri, argitaratu edo ez, ez zitzaidan gehiegi inporta. Ariketa gisa hartu nuen, praktikarekin ikasi ahal izateko. Baina animo horiekin, argitaletxeetara bidaltzeari ekin nion. Hogei argitaletxetara bidali nuen, agian. Hiruk izan zuten interesa, eta Oskarbi liburu dendara joan nintzen, aholku eske. Bat gomendatu zidaten, banaketa sare ona zuelako. l

Harrera ona izan zuen?
Granadako argitaletxe txiki bat zen. Beraz, publizitaterik ez nuen izan. Ni neu jarri nintzen komunikabideekin harremanetan, promozio lana egin nuen, aurkezpena antolatu nuen etab. Guzti hori kontuan hartuta, oso harrera ona izan zuen. Ezagunek irakurri zuten lehenengo, ahozahokoak funtzionatu zuen, eta Irunen kokatuta zegoenez, hiriko jende asko harrapatu zuen. Dena den, autoedizio batekin, edo argitaletxe txiki batekin, inguruko zirkulutik ateratzea oso zaila da.

Bigarren eleberria Ereinekin argitaratu zenuen. Alde handia nabaritu duzu?
Izugarria. Editorial serioa da. Promozioa egin didate, nobela beltzeko jardunaldietara eta liburu azoketara gonbidatu naute etab. Eta banaketa estatu mailakoa da. Lehenengo tirada, behintzat, liburu denda handi gehienetan egon da.

Zein bilakaera izan duzu eleberri batetik bestera? Asko ikasi duzu?
Lehenengo eleberritik bigarrenera, batez ere. *Chamusquina*k asko irakatsi zidan. Bigarrenetik hirugarrenera, ez nuke esango alde handia dagoenik. Baina ez dakit, irakurleek epaituko dute.

Estilo argia eta zuzena duzu, korapilo handirik gabea. Irakurlearengana hurbiltzeko modua da?
Horrelako idazkera gustuko dut. Zinematografiko samarra, oso bisuala. Akzioa gustatzen zait. Nik eleberri bati eskatzen diot entretenigarria izatea, ez dadila aspergarria izan. Beraz, ni ere horretan saiatzen naiz. Nire ustez, literaturak gozatzeko balio behar du, egunerokoaz deskonektatzeko.

Nobela beltzaren ezaugarriak dituzte zure eleberriek, baina bestelako gaiak lantzeko ere baliatzen dituzu. Pertsonaien alde pertsonalak pisu handia du.
Zalantzarik gabe, hala behar du izan. Niri ez zait gustatzen polizia txosten soil bat irakurtzea. Horregatik, ikerketaren inguruko testuinguruak ere parte hartu behar du istorioan. Ertzaina baldin bada protagonista, bere familiako dramak, bere ideiak eta beldurrak ezagutzea ezinbestekoa da. Giza harremanei buruz idaztea gustatzen zait.

***La sirena roja*ko pertsonaia nagusiak berreskuratu dituzu *La chica olvidada*n. Jendeak eskatu dizulako, edo zuk erabakita?**
Azkenean, pertsonaiekin harreman estua sortzen da eleberria idazterakoan, eta haiekin jarraitu nahi nuen. Egia da jende askok eskatu zidala. Onartzen dut niri ere gustatzen zaidala sagak irakurtzea, baina ez nuen uste jende guztiak jarraipena eskatuko zidanik. Ez zen erabaki erraza izan, eleberrietarako ideia asko ditudalako buruan.

Zer aurreratu daiteke, *La chica olvidada*ri buruz?
Ertzaintzaren Oiartzungo komisariako ikerketa taldea da protagonista, aurreko eleberrian bezala. Oraingoan, Hondarribia da eszenatoki nagusia. 1999an gertatutako krimen batekin hasten da. Neska baten gorpua itsasargira doan errepidean agertzen da. Orainaldira jauzi egiten du gero eleberriak, hildako beste neska bat agertzen baita antzeko baldintzetan. Kasu horien arteko harremana da abiapuntua.

Ingurua ez duzu gehiegi aldatuko beraz. Nahiago duzu ezagutzen dituzun lekuei buruz idatzi?
Bai, oso eroso nabil nire inguruari buruz idazten. Emaitza ona eman dit, gainera. Inguruko jendeak esan dit eskertzen duela lekuen izenak irakurri eta horiek irudikatu ahal izatea. Dena den, kanpoko jendearentzat ere interesgarria izan daitekeela uste dut, lekuak ezagutzeko. Niri adibidez, asko gustatzen zait Suediako herri txikietan gertatzen diren eleberriak irakurtzea.

Erritmo bizkorrean ari zara idazten. Nola egiten duzu lanarekin uztartzeko?
Momentu honetan ez naiz lan egiten ari. Disko-hernia batekin nabil, min handia daukat, eta lan egiteari utzi behar izan diot, momentuz. Bestela, lanaldi erdiko lanpostuak bilatzen ditut, idazteko denbora eduki ahal izateko. Badago jendea oporretan idazten duena, etab. Baina zaila da horrela eleberriak idaztea. Jarraitutasuna behar dute.

Nola azalduko zenuke nobela beltzak azken aldian lortu duen arrakasta?

Ez dakit zer gertatu den. Irakurlea harrapatzeko gaitasun handia dauka. Batzuetan, irakurtzen hasita, ez duzu gelditzeko unea topatzen. Bestalde, gizartea islatzeko aukera ere ematen du.

Kritikak, askotan, bigarren mailako literaturatzat hartzen du nobela beltza.
Generoak beti izan du borroka hori. Baina niri ez zait batere axola. Gehien gustatzen zaidan generoa da irakurtzeko, eta idazteko. Jende askok irakurtzen nau, eta ni zoriontsu naiz horrekin. Gero, gertatzen dena da idazleek kritikoen aurkakoa pentsatzen dutela. Blogarien iritziak irakurtzea besterik ez dago.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

JOSE LUIS TREKU, Oskarbi taldeko kantaria:

“Gustura ari gara, gure erritmo lasaian”

Urrezko ezteiak ospatzen ari da Oskarbi musika taldea. 1966 urtean sortu zen, Oarsoaldean, ahots harmonikoak oinarri hartuta. Herri kantutegiko abestien moldaketa eta sorkuntza propioak uztartu izan dituzte ibilbide osoan zehar. Ez Dok Amairun parte hartu zuen Oskarbik, eta bere bidea egin zuen ondoren, 1980ko hamarkadaren erdialdera arte. Sei disko grabatu zituzten. Eten baten ondoren, XXI.mendearen hasieran eszenatokietara bueltatu ziren. Aurrerantzean beste lau disko argitaratu dituzte.

Aurten, berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, emanaldi bereziak eskaintzen eta disko berria prestatzen ari dira. Irunen ere kontzertua emango dute, maiatzaren 13an, Amaia Kultur Zentroan (20:00). Harago doa Oskarbik Irunekiko duen harremana, hiru musikari irundar ari baitira, gaur egun, taldean: Gontzal Iñarra (flauta), Diego de Vera (perkusioa), eta Maite Lopez de Arbina (biolina). Joselu Treku taldearen sortzaileetako bat da. Oskarbiren historiari buruzko liburua idazten ari da, gainera.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Berrogeita hamargarren urtemugaren aitzakiaz, kontzertu gehiago ari zarete ematen?
Bai, aurten, urtemuga baliatuz, kontzertu dezente ditugu. Bestalde, disko berria grabatzen ari gara, eta ni taldearen historiari buruzko liburua idazten ari naiz. Guzti hori urteurrenaren ospakizunetan kokatzen dela esan daiteke.

Diskoan abesti berriak sartuko dituzue?
Aspaldiko kantu bat berreskuratuko dugu, grabazio txar batean dagoena. Beste guztiak orain sortuak dira. Gure betiko bi adarrak jorratu ditugu. Herri kantak daude alde batetik, gure erara moldatuak eta musikatuak, eta gure sorkuntzak ere bai. Bi ildo horiek landu izan ditugu beti.

Kontzertuetan kantu zaharrak eskatuko dizkizuete.
Bai. Aurtengo kontzertuetan, bereziki, betiko kantu historikoak jotzen ari gara. Baina Xirimiri gure azken diskokoak, eta orain prestatzen ari garenekoak ere bai. Beti ere, kontzertu bakoitzean kantuen zerrenda eta ordena aldatuz. Hori dela eta, eztabaidatxo batzuk izaten ditugu gure artean.

Beteranoek, bereziki, zer moduz ikusten duzue zuen burua zuzenekoetan?
Gure bizitzaren jarraipena besterik ez da. Betidanik ibili gara kantuan. Eman genituen urte batzuk eszenatokietatik urrun samar, baina orain gustura gabiltza berriro.

Ikusleei dagokienez, adineko jendea hurbiltzen da, batez ere?
Bai, gazteak baino gehiago dira beti. Gure belaunaldiko jendea izaten da. Seme-alabak edo bilobak eramaten dituzte batzuetan, hori bai.

Musikari gazteak ere badituzue orain. Nolako harremana duzue?
Horrek bizitza eman digu. Beteranoek aspaldi ezagutzen dugu elkar, beraz, gure joerak ditugu. Lau musikari gazte ditugu orain, eta oso aberasgarria da. Azpimarratzekoa da musikariak direla, ez kantariak, hori baita gaur egungo joera. Garai batean kantatzeko ohitura gehiago genuen, eta orain instrumentuak jotzea nahiago dute gazteek.

Taldearen historiari buruzko liburua idazten ari zara. Atzera begiratzeko eta taldearen ibilbideaz hausnartzeko modua da.

Zein balorazio egiten duzu?
Ni oso gustura ari naiz, gauzak gogoratzen ari naizelako. Memoria ahula da, batez ere datak oroitzeko. Sentsazioekin ez hainbeste. Jende askorekin hitz egiten ibili naiz, hemerotekan arakatu dut, kartelak bildu ditut etab. Bitxia da, batez ere, hasierako urteetako datu pila bat lortu ditudala. Azken garaikoak baino gehiago.

Zein oroitzapen duzu lehen urteen inguruan? Frankismoaren azken garaian sortu zineten.
Hasi ginenean, abesbatzak eta otxoteak besterik ez zeuden. Gu ere, Don Bosco haur abesbatzatik sortu ginen. Euskal kulturaren alde beste zerbait egin nahi genuen. Eurovision lehiaketako abestiak edo filmetakoak euskaratzen hasi ginen. Gero, herri kantagintzan sakonduz joan ginen. Garai hartan bazegoen beste bide bat, langile kantu edo kantu sozialarena. Talka bat izan zen horrekin. Guk biak bateragarriak zirela uste genuen. Herri kanta ezagutzera emateari lehentasuna eman genion, dena den. Azkuek, Aita Donostiak, Riezuk eta horiek euskarazko 3.000 bat kantu bildu zituzten. Ondare handia da hori.

Ez Dok Amairun parte hartu zenuten. Nolako esperientzia izan zen?
Historia laburra izan zen Ez Dok Amairurena, eta gurea, are laburragoa. Lau urtez ibili ginen haiekin, baina oso interesgarria izan zen guretzat. Garaiko abangoardia zegoen han, hortaz, asko ikasi genuen. Arazoa zen gu zazpi laguneko talde bat ginela, eta Ez Dok Amairuko gainerakoak, bakarlariak. Horrek istilu logistikoak eragin zituen. Guk gure dinamika propioa genuen, beraz, gure bidetik jarraitzea erabaki genuen.

80ko hamarkadaren erdi aldera arte ibili zineten etenik gabe.
Bai. Hurrengo hamarkadan zehar ez genuen kontzerturik eman. Noizean behin biltzen ginen, baina bazkariak edo afariak egiteko. 2000 urtearen inguruan tarteka emanaldi batzuk egiten hasi ginen, eta Donibane-Lohizuneko Begiraleak elkarteekin Ameriketara joateko aukera ere izan genuen. Orduan hartu genuen martxa berriro. Orduz geroztik beste lau disko grabatu ditugu, eta bospasei kontzertu eman izan ditugu urtero. Ez da hasierako erritmo berdina, urterik onenetan

60 kontzertutik gora eman izan genituelako. Baina oso gustura ari gara, gure erritmo lasaian.

Asko aldatu da kontzertuak antolatzeko modua?
Bai, hobera, zentzu askotan. Gu hasi ginenean, sektore batzuek uste zuten kantari euskaldunak herriaren zerbitzura egon behar ginela. Beraz, kantari militanteak ginela, ez genuela kobratu behar, eta herriak nahi zuen lekuan kantatu behar genuela. Guk gutxieneko duintasun bat eskatzen genuen: eszenatoki bat, mikrofono batzuk etab. Beranduago, dirua zegoen garaian, taldeak eskatzen zuena ordaintzen zuten antolatzaileek. Orain dena da takilaren arabera, edo lokala alokatuta.

Ahotsa duzuen bitartean jarraitzeko asmoa duzue?
Aurten eta datorren urtean, seguru. Aurrerago, ikusiko dugu. Kontuan hartu behar da ez dela erraza hamar kideko talde bat mugitzea. Bakoitzak bere bizitza dauka, astean behin elkartzen gara entseatzeko, eta ez gara beti denak biltzen. Hala ere, gure erritmoan aurrera egingo dugula uste dut. Diskoak egitea eta kontzertuak ematea da gure ilusioa. Hori eteten denean, amaituko da.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Opila Eguna!

Txalapartaren doinuak hartu du Meaka

Antzinako perkusio instrumentuaren inguruko festa egin dute auzoan

Txalaparta Egunaren lehen edizioa egin dute apirilaren 17an Meaka auzoan. Meaka-Festak jai batzorde berriak antolatutako lehen ekimena izan da, eta beste zenbait elkarteren eta establezimenduren babesa izan du. “Helburua izan da txalaparta zabaltzea, Irunen ezagutaraztea eta herritarrei gerturatzea. Denok maite dugu, baina urrun gelditzen zaigu”, azaldu du Meaka-Festak taldeko Iñigo Aizpuruak. Beste helburua, irundar askorentzat ezezaguna den landa eremuko auzora jendea erakartzea izan dela onartu du. Horretarako, txalaparta doinuez gainera, bestelako jarduerak ere prestatu dituzte. Goizeko 11etan hasi da festa, Ola sagardotegian. Handik irten da auzo osoa zeharkatu duen kalejira, Ondare Kultur Elkarteko buruhandiekin eta Luis Mariano erraldoiarekin. Artisauen postuak egon dira Olan, La Juanitan, Amona Kattalin Txokon eta Borda Txikin.

Txalapartari dagokionez, Irungo Txalapartariak elkarteko eta haiek gonbidatutako txalaparta jotzaileek emanaldiak eskaini dituzte tabernen kanpoko aldean. Gainera, haurrentzako tailerrak eskaini dituzte auzo elkartearen egoitzan. Mattin Sorzabalbere aritu da, besteak beste, gaztetxoenekin: “Makilak hartu eta saltsan ibili dira. Erraz ikasten da hasieran, baina amaierarik gabeko ikasketa da”. Meaka Dantza Taldeko haurrek dantza emanaldia eskaini dute auzo elkartean, herri bazkariaren aurretik. Ondoren, ostatuetako arduradunek prestatutako janaria dastatu ahal izan dute bazkaltzera animatu direnek. Bazkalostean, Peio Urtxegik bizilagunen omenaldia jaso du, auzoaren eta dantzaren alde urtetan egin izandako lanagatik. Arratsaldean festak aurrera egin du, eta jendea Meakara erakartzen jarraitu du. Balorazio baikorra egin du Iñigo Aizpuruak: “Lehenengo ordutik, normalean baino jende gehiago ibili da auzoan. Pozik gaude egunarekin. Aurtengo emaitza kontuan hartuta, urtero egin dezakegun ekintza izan daiteke”.

Bidasoa helburu

Eskualdeko errepideetan nabarmentzen ahaleginduko dira txirrindulari gazteak

Irunera bidean dira, jada, 23 urtez azpiko tropeleko estatuko txirrindularirik onenak. Denboraldiko lasterketa nagusietako bat da denentzat Bidasoa Itzulia, egutegian ondo markatutako hitzordua. 20 talde eta 140 txirrindulari lehiatuko dira Bidasoko errepideetan. Lau etapa bizi izango dira, maiatzaren 4tik 7ra.

Mikel Landa, Ion Izagirre, Gorka Izagirre, Beñat Intxausti, Jonathan Castroviejo, Ramunas Navardauskas, Andrey Amador, José Joanquín Rojas eta Daniel Martin. Tourrerako edo beste edozein itzuli handitarako talde beldurgarria izango litzateke, gaur egun. Azken hamarkadan Bidasoa Itzulian nabarmendu izandako txirrindulariak dira denak. Lortu duten maila kontuan hartuta, haien bidea jarraitu nahi lukete une honetan 23 urtez azpiko tropelean dabiltzan txirrindulariek. Eta badakite, profesionaletara jauzia emateko tranpolin egokia dela Bidasoa.

Antolatzaileek prest dute aurtengo edizioa. Lau etapako lasterketa izango da, aurrekoen bidea jarraituko duena. Maiatzaren 4an Irungo Urdanibia plazatik irtengo da lehen etapa, eta Igantzin izango du helmuga, IrriSarri Land abentura parkean. 107km-ko etapa izango da, eta amaiera gogorra edukiko du, ia bi kilometroko igoera pikoa baita IrriSarri Land-era daramana. Joan den urtean ere hantxe amaitu zen etapa, lehen aldiz. Antxon Mendia lasterketako zuzendariak onartu du beldur pixka bat izan zuela: “Pentsatzen nuen diferentzia handi samarrak egongo zirela txirrindularien artean, minutu erdikoak ere bai. Baina azkenean segundo eskasekoak izan ziren aldeak”.

Bigarren etapak Hendaiako Gaztelu Zaharren izango du hasiera, eta Hondarribiko Harresilandan amaituko da, txirrindulariek 123km egin ondoren. Hondarribira jaitsi aurretik, Jaizkibel mendatea igo beharko dute. Hirugarren egunean Bidasoko mugetatik kanpo irtengo da itzulia, Gipuzkoan zehar ibiltzeko. Orioko Arrantzale kalean izango ditu irteera eta helmuga, eta Urola Kostako eta Goierriko errepideak zeharkatuko ditu tropelak. 23 urtez azpiko txirrindularitzaz gozatzeko aukera emango die lasterketak eskualde horietako zaleei, eta bide batez, Bidasoa Itzuliaren oihartzuna zabaltzeko balioko du etapak. Arrazoi ekonomikoak ere badira tartean, jakina. “Eskualdean jasotzen dugun laguntza ez da nahikoa, eta horregatik irten behar izaten dugu”, aitortu du Mendiak.

Laugarrena, erabakigarria

Laugarren eta azken etapa klasikoa izango da. Ficoba erakustazokan hasi eta Colon ibilbidean bukatuko da. Oso etapa laburra da, 77,5km-koa, baina gogorra, halere. Aritxulegi, Agina eta Erlaitz mendateak gainditu beharko dituzte txirrindulariek. Ibilbidea luzatu eta Erlaitzen ondoren Arkale mendatea sartzen ahalegindu dira antolatzaileak aurten. Antxon Mendiak azaldu du ez dutela baimena lortu: “Trafiko aldetik arazoak sor daitezke, larunbat arratsaldea delako eta jende asko mugitzen delako”. Gaur egun, Erlaitz mendateak ere ez du lasterketa erabat apurtzea lortzen. “Esaten da itzulia Erlaitzen irabazten dela. Baina ez da egia, azken aldian Gurutzetik behera irabazten da, askotan”, gogorarazi du Mendiak.

Joan den urtean, Steven Calderón kolonbiarrak lehen egunean jantzi zuen maillot horia, eta ez zuen berriro erantzi. Calderón igo zen sailkapen nagusiko podiumeko lehen tokira. Azken etapak, edonola ere, emozio handia izan zuen, azken kilometroetan sartuta ez baitzegoen argi liderrak maillotari eutsiko zion edo ez. Ikuskizunari dagokionez positiboa izateaz gainera, lasterketaren mailaren erakusgarri ere badela uste du Antxon Mendiak: “Lau etapako lasterketa batean, amaieran halako emozioa lortzea oso zaila da. Seinale ona da, esan nahi du txirrindulariak oso parekatuta ibiltzen direla”.

Maila handiko tropela

20 talde egongo dira maiatzaren 4an Urdanibia plazako irteeran. Lau izango dira atzerritarrak: Blagnac eta La Pomme Marseille frantziarrak, VL Tecnics Esperza belgikarra, eta Colpack italiarra. “Oso talde ona da Colpack, baina txirrindulari azkarrak ditu batez ere, ez dira horren igotzaile onak”, azaldu du Mendiak. Euskal Herriko hamar talde, eta estatuko beste lekuetako sei izango dira gainerakoak. Polartec Fundación Alberto Contador azpimarratu daiteke azken horien artean, Fernando Barceló Espainiako Kopako liderra baitu taldean.

Euskal taldeen artean Lizarte nafarra nabarmendu du Mendiak. Itzuliko multzo indartsuena izango dela uste du. Sergio Samitier Gorlako igoera irabazi duen txirrindularia dago Lizarten, eta beste faboritoetako bat izan daiteke. Talde berean, Torredonjimenoko klasikoa irabazi duen Hector Carretero ere badago. Aiztondo Klasikoa irabazi duen Jaume Sureda (Seguros Bilbao), edo Balenciaga Memoriala irabazi duen José María Díaz Gallego (Rodríguez-Extremadura) ere sar daitezke hautagaien zerrendan. Euskal txirrindularirik ez dago horien artean. Antxon Mendiak uste du koska bat beherago daudela, eta podiumean sartzeko lehian egon daitezkeela, gehienez. Euskal harrobiaren maila aldarrikatzeko aukera aproposa izango dute Bidasoko errepideetan.

Maiatzak 4tik 7ra izango dugu Bidasoa Itzulia. Aurten 44 edizio betetzen ditu Espainiako eta nazioarteko proba garrantzitsuenetakoa den lasterketak (23 urtez azpiko mailan).

Besteak beste Luis Ocaña, Abraham Olano edo Carlos Sastre dira gure eskualdean eta inguruan distira egin zuten txirrindulari batzuk. Horiez gain, gaur egun ospetsu diren Alberto Contador madrildarrak eta Mikel Landa arabarrak eman zituzten hemen haien formazioaren azken pedalkadak.

Aurtengoan, Hondarribiko eta Irungo etapa klasikoak errepikatzen dira ibilbidean (bertan Jaizkibel eta Erlaitz mendateak eta jeitsierak nagusi). Igantziko IrriSarri Land-eko abentura parkera iritsiko dira kirolariak lehenengo jaurnaldian, iaz bezala, hirugarrena, Orion hasi eta Orion bukatu ere bai, baina oraingoan Aiako muinoa ez dute igoko.

%28-ko penditzara iristen den horma kenduta, Euskal Herriko Itzuliaren antzerako bukaera ikus dezakegu. Printzipioz talde txikietan iritsiko dira egunero.

Azken urteotan, Loic Chetout (Cofidis) frantziarra, Davide Martinelli (Etixx - Quick Step) Giulio Ciccone (Bardiani) italiarrak eta Julen Amezqueta (Southeast) nafarra ez dira oraindik profesionalen artean nabarmendu, baina argi ibili, etorkizunean tropeleko izarren artean egoteko gai direlako, Contador, Landa, Dan Martin edota Andrey Amador adibide garbiak ditugu eta.

Goza dezagun txapeldun handien harrobi honekin!

Imanol Llucia
subiendopuertos.com

Ibilbide gogorra, baina ederra

Erlaitz-Aiako Harria mendi lasterketa egingo dute maiatzaren 8an

350 korrikalari irtengo dira maiatzaren 8an, 9:00etan, Ola Sagardotegiko aparkalekutik. VI.Erlaitz-Aiako Harria mendi maratoi erdia bukatzea izango dute helburu. 22 kilometro pasatxoko ibilbidea osatu beharko dute horretarako. Aldapa pikoak eta jaitsiera arriskutsuak gainditu beharko dituzte. Baina trukean, naturaz eta paisaia ikusgarriez gozatzeko aukera izango dute. Horiek baloratzeko indarra baldin badute, behintzat.

Lasterketa gogorra da Erlaitz-Aiako Harria. 1.300 metroko desnibel positiboa du, eta %48rainoko aldapa duten puntuak ere baditu. Torreoien igoera eta Irumugarrieta tontorrera daramana dira zailtasunik handienak. Hala ere, maratoi erdiko distantzia labur samarra da, mendi lasterketen munduan nagusitzen ari diren proba luzeagoekin alderatuta. Horregatik, Erlaitz-Aiako Harria hasiberrientzat ere egokia izan daitekeela uste du Iñaki Catalán talde antolatzaileko kideak: “Neurriko entrenamenduarekin, mendian korrika ibiltzen den edonork amaitu dezake lasterketa. Bero ikaragarria egiten ez baldin badu, behintzat, ateratzen diren gehien-gehienek bukatzen dute”.

Horixe izan zen duela sei urte lasterketa martxan jartzerakoan izan zuten helburuetako bat. Mendian korrika ibiltzen zen lagun talde bat Erlaitz Mendi Elkartean biltzen hasi zen orduan, Irunen proba bat antolatzeko asmoz. “Konturatu ginen guk lasterketetan parte hartzen genuela, beste batzuek antolatzeko lana hartzen zutelako. Horregatik, gure eremuan proba bat eskaintzea erabaki genuen”. Aiako Harriko paraje ikusgarriak hautatu zituzten horretarako. Esperientziarik eta ideia handirik gabe antolatu zuten lehen edizioa. Baina aurrera atera zuten, eta konturatu ziren bazutela gaitasuna. Urte hartan jasotako aholkuen arabera, amaiera aldatu zuten. Errota Zaharreko maldaren gainean dago orain helmuga, Sioutz-Toki Alai eskolatik gertu. Hantxe eskaintzen dituzte dutxak, aldagelak, eta hamaiketako oparoa. “Nahiko familiarra da lasterketa. Baina korrikalariei giro hori gustatzen zaie”, argitu du Catalanek.

Muga zorrotzak ditu lasterketak

Aholku horien arabera, ibilbidea ere moldatu zuten, lasterketa pixka bat gogortzeko. Bigarren ediziotik aurrera, ordea, aldaketa handirik ez du izan mendi maratoi erdiak. Aiako Harrietako hiru tontorrak pasatzea planteatu izan dute, baina Iñaki Catalanek onartu du ez duela aukera hori posible ikusten: “Arriskutsua izan liteke. Edonola ere, lasterketa gogortu eta teknikoki konplikatuko luke, eta ez litzateke edonoren esku egongo. Parte hartzaileen tipologia mugatuko luke, eta guk ez dugu hori bilatzen”. Topatu dituzten beste muga handiak parke naturalaren izaerak sortutakoak dira: “Beste leku ikusgarri asko daude. Adibidez, tuneletatik pasa nahi genuke, baina garai horretan hegazti batzuk habia egiten egoten dira, eta ez digute lasterketa handik sartzen uzten”.

Gainera, lasterketa Aiako Harria parke naturalean egiten dutelako, 350 parte hartzaileen muga ezartzen die Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kopuru hori handitu nahi luketela baieztatu du Iñaki Catalanek. Dena den, aitortu du aurten nahi baino gehiago kosta zaiela 350 dortsalak saltzea. Azalpen logikoa eman du: “Gure lasterketa bizpahiru aldiz egin ondoren, jendeak nahiago du beste erronka batzuk probatu. Aukera zabala dago, gero eta lasterketa gehiago daudelako”. Estankatzeko arriskuan ikusten du, beraz, lasterketa: “Eraberritzera behartuta gaude. Bestela, zaila da ingurukoekin lehiatzea”.

Hirugarren edizioan saiatu ziren bide horretan ekarpen bat egiten. Kilometro erdi bertikaleko lasterketa labur eta gogorra antolatu zuten mendi maratoi erdiaren aurreko egunean. Asteburu osoko egitaraua eskaini zuten horrela, Sky Games izenpean. Hiru edizio egin zituen Erlaitzek antolatutako Sky Games ekimenak. Baina aurten, kilometro erdi bertikala alde batera uzteko erabakia hartu dute: “Ez ditugu helburuak bete, parte hartzeari dagokionez. Momentuz, arrakasta handirik ez dute igoera bertikalek”. Beraz, larunbateko lasterketa alde batera utzi, eta igandeko mendi maratoi erdian jarri dute arreta osoa. Beste urte baterako, proba Irungo erdigunean amaitzeko aukera ere mahai gainean jarri dute, diru-laguntza eta babesle gehiago lortzeko. “Baina horrek asfalto kilometro gehiago eskatuko lituzke, eta mendi lasterkariei ez zaie gehiegi gustatzen”, zalantza egin du Catalanek.

Boluntarioen ezinbesteko lana

Erlaitz Mendi Elkarteko Mugalariak sekzioak antolatzen du lasterketa. Mendian korrika ibiltzen diren bazkideak dira. Lasterketaren egunean, ordea, elkarteko gainontzeko bazkideen eta haien senideen eta lagunen babesa izaten dute. Laguntza hori gabe, lasterketa antolatzea ezinezkoa izango litzatekeela adierazi du Catalanek: “150 lagun inguru mobilizatzen ditugu, bidegurutzeak kontrolatzeko, janariak eta edariak emateko, etab.”. Mugalarien ordezkaritza txiki bat ere egoten da lasterketan. Baina egun horretan, lehentasuna ez da parte hartzea, Erlaitz-Aiako Harria mendi maratoi erdia ondo antolatzea baizik.

Hazkunde handia, estrukturarik gabe

Erlaitz-Aiako Harria mendi maratoi erdiaren eskutik sortu zen Mugalariak taldea. Proba antolatzeko gelditzen hasi ziren, elkartean batzuetan, eta mendian beste batzuetan. Horrela, modu naturalean, mendi lasterkarien taldea ere osatzea erabaki zuten. Denbora tarte laburrean, hazkunde ikaragarria izan du taldeak, eta ehun kide inguru ditu gaur egun. Gehiegi hazi direla uste du Iñaki Catalanek, ez baitute inolako estrukturarik: “Erlaitz Mendi Elkartearen sekzio informal bat besterik ez gara. Baina hemendik aurrera, nolabait erregulatu beharko dugu”.

Argi dagoena da mendian korrika egitea modan dagoela. Kirola egin nahi duenarentzat, gimnasiora joatea baino dibertigarriagoa dela iruditzen zaio Catalani: “Adin jakin batetik aurrera, abenturak eta emozioak behar izaten ditugu, errutina oso astuna baita”. Mononotia apurtzeko modu ederra izan daiteke mendian korrika ibiltzea: “Lehen egunean leher eginda amaituko duzu. Baina sasoian egonez gero, sentsazio ikaragarriak transmititzen ditu”. Mendizale batzuek, ordea, ez dute begi onez ikusten. Erantzun zorrotza eman du Catalanek: “Mendiaz gozatzeko beste modu bat baino ez da. Eboluzio naturala. Barrita energetikoek bokadilloa eta zahatoa ordezkatu dituzte, eta zapatilek mendiko botak”.

Aiako Harria; ibilbide biribila: Ola, Aitzondoko ur-jauzia, Irugurutzetako labeak, Meazuriko ur-jauzia, Erlaitz, Ola

GORKA MARTINEZ



Etxetik gertuko irteera da, aste euritsuetarako aproposa. Aitzondo eta Meazuri ur-jauziak ezagutuko ditugu. Aiako Harria parke naturaleko puntu ezberdinetan ezkutatuta daude, eta ezezagunak dira irundar askorentzat. Horietara hurbiltzera animatu nahi genituzke, ondorengo ibilbidea proposatuz.

Ola Sagardotegian hasten da ibilbidea, Irunen, Aiako Harria parke naturalaren oinetan. Albo batean, SL GI 1006 bidetik Aitzondoko ur-jauzira garamatzan kartela ikusiko dugu. Hasieran, zementuzko bidea da. Marka zuri-berdeak jarraituko ditugu. 5 minutuz ibili ondoren, eguneko lehen igoerara iritsiko gara. Hankak berotuko ditugu, altuera hartzen dugun heinean. Bista ederraz gozatu ahal izango dugu laster.

Zementuzko pista utziko dugu, ezker aldera sartzeko (30'). Hodi batzuk zeharkatu, malda txiki bat jaitsi, eta bide zabal batera helduko gara. Aitzondoko ur-jauzira eramango gaituen kartela ikusiko dugu laster (40'). Arroketan gora egingo dugu, kontu handiz, zoritxarrez irundar askok ezagutzen ez duten ur-jauzi ederraz gozatzeko.

Aitzondora iritsi aurretik ikusi dugun kartela dagoen puntura bueltatuko gara ondoren. SL GI 1006 bidea jarraituko dugu, eskaileretan behera. Jaitsiera pikoaren ondoren, Irugurutzetako labeetara iritsiko gara (1:25). Kartelean, SL GI 1006 bidetik jarraituko dugu, Enbidora bidean, oraingoan. Igoera gogorra da, aldapa handikoa. Amaieran dagoen hesian, SL GI 1006 bidea utzi, eta PR GI 1012a hartuko dugu (1:55). Marka berdeak beharrean, horiak segituko ditugu aurrerantzean.

Eskuin aldean dagoen pista hartuko dugu, Meazurirako noranzkoan. Tunelak zeharkatuko ditugu, eta ikuspegi ederra izango dugu eskuin aldean. Aitzondoko ur-jauziaren tamaina ikusiko dugu. Azken tunela zeharkatu ondoren, goiko aldetik ikusi ahal izango dugu ur-jauzia (2:20). Eskuin aldera egin beharko dugu horretarako, errekaren korrontea jarraituz.

PR GI 1012 bidera itzuliko gara gero, eta Meazuri ur-jauzira garamatzan kartelaren norabidea segituko dugu (2:40). Errekaren korrontearen aurka joko dugu oraingoan, hodi batzuen ondotik. Meazuri ur-jauzira helduko gara. Ez da Aintzondokoa bezain ikusgarria, baina merezi du. Atzean utzi dugun kartelera bueltatuko gara, eta PR GI 1012 bidea hartuko dugu berriro, Sorotxikirako noranzkoan.

Poliki igoko gara, Erlaitzeko errepidera ailegatu arte (3:20). Ezker aldera joko dugu, merenderoan atseden hartzeko. Ondoren errepidea jarraituko dugu, 12.kilometroraino. Puntu horretan eskuin aldera doan saihesbidea irteten da. Zementuzko bidea da (3:50). GR-121 bidearen marka zuri-gorriak jarraituko ditugu orain, Saroiaberri baserriraino (4:10). GR-121 bidea utzi, eta ezkerreko saihesbidea hartuko dugu. Hurrengo bidegurutzean ezker aldera egingo dugu berriro (4:45), bidea segituta, Ola Sagardotegira iristeko (5 ordu).

Ibilbide gehiago: unpaisenmimochila.blogspot.com

Elatzeta HH

Toki Alai LH3

LA MECÁNICA DEL CARACOL

TOKI-ALAI ESKOLAN

Pepino bonbilla

Pepinou hartu eta elektrizitatean konektatu ondoren plaka batean jarri zuen. Gero etengailuari eman zion eta elektrizitateak pepinoa zeharkatu zuen.
Bat batean pepinoa piztu egin zen eta honekin bonbilla antzeko bat egin zuen.
Segundu batzuk pasa ondoren lehertu egin zen. Oso bitxia izan zen dena!!

Aitor Aguirre

Intxaur hegalaria

Plastikozko hodi batean intxaur bat sartu zuen eta makina berezi baten laguntzaz aire guztia atera zuen, tutua erabat hutsik gelditu arte.
Ondoren albo batean zegoen plastikoan zulotxo bat egin zuen eta intxaurra abiadura handiz atera zen. Intxaurra ez genuen ikusi, eztanda bakarrik entzun genuen.
Ah, zer sustoa!!

Martin Garmendia

Tornado bat botila barruan

Manuk bi botila hartu zituen eta zinta isolatzailearekin zulatutako tupoiak elkartu zituen. Botila batean likido berde bat zegoen eta besteak airea zuen. Likidoa zuen botilari buelta eman zion baina likidoa ez zen jeitsi. Likidoa astindu eta beste botilara jeisten hasi zen tornado baten itxura hartuz.
Magia bikaina!

Oihana Clemos

Azaroaren 20an, EITBko "La mecánica del caracol" irratsaioko Eva Caballero eta Manu Hernández gure eskolara etorri ziren zientzia nola lantzen dugun ezagutzeko.
6. mailako gela bakoitzeko bi lagun aukeratu ziren zientziari buruzko zerbait kontatzeko.

Irratian hitz egingo genuela esan zigutenean oso urduri jarri ginen, baina gero lasatu ginen Evak mikrofono eta grabadora txiki bat soilik ekarri zituelako eta gurekin oso atsegina izan zelako.

Yeruyk, Oihanek eta Oierrek esperimentuak azaldu zituzten. Nekanek zientziaren inguruko posterrak egingo genituela kontatu zuen. Ekintza hau lan kooperatiboaren bitartez burutu zen.
Sandrak eskolan zientzia eguna nola ospatzen den adierazi zuen eta Manuk zientzialaria izan nahi duela kontatu zuen.

Ondoren Manuren esperimentuen emanaldia ikustera joan ginen, han farra asko egin genuen esperimentuak farregarriak zirelako. Aldamenean, egin zituen hiru kontatzen dituga.

Azaroaren 27an irratsaioa etxean entzun genuen eta guriasoak oso pozik jarri ziren gu entzundakoan.

Y. Aragón – S. Barrejo – O. Celaya – O. Iza- M. Blanco- N. Sagastazu

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Jose Maria Peruarena Hondarribiko 10 urteko haur portuarrak kontatua. (1959ko apirila). (El Bidasoa, 1959-V-9)

Zer da ókiyago

Béin bi gizónek esántzuten:

— Zér da ókiyago, osasúna edo dírua?

Bátek esántzun:

— Osasúna, gaxó!

Eta béstiak esántzion:

— Ez jáuna, Atlétiko de Bilbáu

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Badator Irun Rock

Maiatzaren 14ra aurreratu dute Ficobako musika jaialdia

Zazpigarren edizioa beteko du Men of Rock Musika Elkarteak Irunen antolatzen duen festibalak. Data aldatu du aurtengoan, irailetik maiatzera aurreratzeko. Hilaren 14an izango da 2016ko Irun Rock Jaialdia, Ficoba erakustazokan. Ondorengo taldeak ariko dira zuzenean: Triangulo de Amor Bizarro, Joe la Reina, Rural Zombies, Stay, Havoc, The Saurs eta Estrogenuinas. 18:00etan hasiko dira emanaldiak, Ficobako lehen pabiloian.

Triangulo de Amor Bizarro.

The Saurs.

Udarako musika jaialdien garaiko azken hitzorduetako bat izan da Irun Rock, bere lehen edizioetan. Orain, ordea, udaberri betean egingo dute, eta festibalen zerrenda kronologiko luzearen buruan egongo da, ia. Dataren aldaketak jaialdia erakargarriago egingo duela uste du Iñaki Estevez zuzendariak: "Batetik, jaialdietara joateko gogoz egoten da jendea udaberrian. Bestetik, taldeak lehen aldiz ikusteko aukera paregabea ematen du, irailean ez bezala". Helburu horrekin, jaialdia aurreratzea erabaki du Men of Rock-ek.

Irunen eta Donostian kontzertuak antolatzeko eta bertako taldeei estatuko beste lekuetan jotzeko aukera emateko sortu zen Men of Rock elkartea, 2009 urtean. Irun Rock jaialdia antolatzeko, udalaren babesa du, Irun Zuzenean programaren baitan. Musika taldeak eta promotoreak harremanetan jartzea du helburu, hiriko panorama musikala dinamizatzeko asmoz. Esate baterako, liburutegian antolatzen ari diren AcusticCBAs emanaldi txikiak dira programaren emaitzen adibide. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak uste du Gipuzkoan erreferente bilakatu dela Irun Rock: "Aurreko sei urtetan, banda garrantzitsuak pasa dira Ficobako eszenatokitik".

> "Jaialdietara joateko gogoz egoten da jendea udaberrian"
> **Iñaki Estévez, Irun Rock jaialdiko zuzendaria**

Zazpi talde ariko dira

Musika alternatiboaren panoraman nabarmentzen ari diren taldeak kontratatu dituztela baieztatu du Iñaki Estevezek: "Egiaztatutako kalitatearen alde egiten du Irun Rock-ek". Zazpi taldek eskainiko dituzte kontzertuak 2016ko Irun Rock festibalean. Horietatik hiru, gipuzkoarrak izango dira: Joe la Reina, Havoc eta Rural Zombies. Beste bi, bartzelonakoak: The Saurs eta Stay. Salamancako neskek osatutako Estrogenuinas taldea ere ariko da Irun Rock-en. Kartel burua, Triangulo de Amor Bizarro talde galiziarra izango da. Banda beteranoa da, *Salve discordia* izeneko bosgarren diskoa aurkezten ari baita. "Oso harrera eta kritika onak jasotzen ari da", adierazi du Estevezek.

Maiatzaren 14an eskainiko dituzte kontzertuak talde guzti horiek, Irungo Ficoba erakustazokan. Bezperan, dena den, doako beste zenbait kontzertu antolatuko dituzte hiriko establezimendu ezberdinetan. Ficobako kontzertuetarako sarrerak aldez aurretik eros daitezke, 15 euroren truke (www.ticketea.com / www.ticketbell.com / www.kutxasarrerak.net). Jaialdiaren egunean, 20 eurotan salduko dituzte geratzen direnak, leihatilan. Irailerako hitzordua aurreikusia zuenak, azkar ibili beharko du aurreratzeko.

Talde gazteentzat, MusikIrun

MusikIrun Maketa Lehiaketa antolatu du Irungo Udalak, seigarren aldiz. 30 urtez azpiko kideek osatutako edozein taldek parte har dezake. Jatorriari dagokionez, ez dago mugarik. Taldeek maiatzaren 13ra arteko epea dute lanak entregatzeko. CBA kultur gunean dagoen Gazteria Bulegoan eman daiteke, pendrive batean, edo www.irun.org/igazte web gunean prestatu duten aplikazioan, bestela. Bi kantu aurkeztu behar dira gutxienez, eta bost gehienez.

Epaimahaiak sei maketa onenak hautatuko ditu lehen fasean. Ondoren, aukeratutako taldeek kontzertuak eskainiko dituzte Irungo lokal ezberdinetan. Final gisa balioko duen azken kontzertuan izendatuko dituzte irabazleak. Talde onenak Mini Lp bat grabatu ahal izango du, eta 2017ko Irun Rock jaialdian parte hartuko du, gainera. Bigarren sailkatuak bost abestiko maketa grabatuko du, eta hirugarrenak hiru kantuko single-a. Herritarren bozka gehien biltzen dituen taldeak 400 euroko saria jasoko du, musika materialean gastatu ahal izateko.

Maketa lehiaketan parte hartzen duten taldeen kontzertuak Irun Zuzenean ekimenaren baitan sartu dituzte. Horiez gainera, emanaldi gehiago ere programatu dituzte, apiriletik uztailera arte.

Irun Zuzenean ekimeneko hitzorduak:

Maiatzak 28, larunbata:
Maketa lehiaketako lehen finalerdia. Rock & Meat tabernan, 18:00etan.

Ekainak 4, larunbata:
Maketa lehiaketako bigarren finalerdia. Rock & Meat tabernan, 18:00etan.

Ekainak 17, ostirala:

SUPERNOVA, CALLE BEAT, KONTRABAND eta ELENA Y LA VERBENA. Urdanibia plazan, 21:00etan.

Ekainak 18, larunbata:
Maketa lehiaketako finala, hiru talde onenekin. Urdanibia plazan, 21:00etan.

Uztailak 22, ostirala:
VENTURA eta LA BONA DEA. C.D. Bidasoa plazan, 20:30etan.

MUSIKIRUN VI. MAKETA LEHIAKETA GAZTEARTEAN 2016

Taldeek edo bakarlariek parte hartu ahal izango dute, jatorri geografikoa eta musika estiloa edozein direlarik ere.

Aurkeztu beharrekoa:

- Maketa, (gutxienez BI abesti, gehienez BOST).

- Taldearen edo bakarlariaren egungo argazkia gehitu, formatu digitalean

Izena emateko?

1. e-mail bidez: igazte@irun.org

2. IGazte bertan (CBA Kultur Gunea, -1 solairua, San Juan Harria plaza - IRUN).

Norentzat: 16 - 22 urte bitartekoentzat.

Zer behar da? Animatzen bazara, grabatu bideo bat zure datuekin, dantza batekin eta kantu batekin.
bideoa bidaltzeko:
goazen@pausoka.com

Informazio gehiago: 943 29 71 11 (Andoni Cruz - Itziar Gomez)

ZUK, ABESTEN ETA DANTZATZEN DUZU??? ORDUAN... GO!AZEN

GO!AZEN telesail musikala martxan da berriro! Atal berriak grabatuko dituzte uda honetan eta neska eta mutil gazteak behar dituzte, kantatzen eta dantza egiten dakitenak.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IRUN UDAN 2016

Sartu Igazteren web gunean (www.irun.org/igazte) eta ezagutu udalak 2016ko udarako eskaintzen dituen zenbait zerbitzu: udaleku irekiak (ordu batzuez bakarrik), udalekuak eta kanpamenduak, kirol ekintzak, ikastaroak, tailerrak, bisitak, hizkuntzak atzerrian ikasteko aukera, auzolandegiak, lankidetza, boluntariotza, elkartasun brigadak, bidaiak, etab.

UDALEKUAK ETA ABENTURA 2016
IRUNGO UDALA

Kirol jolasak, irteerak, kanpaldiak, tailerrak, diskoteka, jaiak, abentura kirolak, taldeko jokoak, talde dinamimak, etab.

Non? Irrisarri Land (Igantzi - Nafarroa)

Adinak: 8-16 urte

1.go Txanda: uztailak 3-9/8-10 urte (euskaraz), ondorengo urteetan jaiotakoak: 2006/2007/2008.

2. Txanda: uztailak 9-15/11-13 urte (euskaraz), ondorengo urteetan jaiotakoak: 2003/2004/2005.

3. Txanda: uztailak 15-21/8-10 urte (euskaraz), ondorengo urteetan jaiotakoak: 2006/2007/2008.

4. Txanda: uztailak 21-27/11-13 urte (elebiduna), ondorengo urteetan jaiotakoak: 2003/2004/2005.

5. Txanda: uztailak 27-Abuztuak 2/14-16 urte (euskaraz), ondorengo urteetan jaiotakoak: 2000/2001/2002.

6. Txanda: abuztuak 2/8 14-16 urte (elebiduna) ondorengo urteetan jaiotakoak: 2000/2001/2002.

Prezioa? 159,15 € (2. senidea: 127,32 €, 3. senidea: 95,49 €, 4. senidetik aurrera: 63,66€).

Aurre inskripzioak:
Maiatzak 2 - 6
- Telefonoz, 010era edo 943.50.51.52ra deituta (8:00 - 20:00h.).
- web: www.irun.org/sac

Maiatzak 4

Zer? Argazki ikastaroa. Hizlaria: Miguel Salaverria (AFI/IAEko kidea). Ezinbestekoa da argazki kamera eramatea.

Non? Elitxu Auzo Elkartea Euskal Herria hirib., 25

Ordua? 19:00etan.

Izen-emateak?:
943635294 telefonoan edo Elitxuko bulegoan (Euskal Herria hirib., 25)

Maiatzaren 3tik 15era

Zer? San Pedro eta San Martzial jaietako kartelen erakusketa.

Non? Amaia KZn.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandetan eta jaiegunetan 11:30-13.30.

Prezioa? Doako sarrera.



Maiatzak 5

Zer? Bertso saioa Irunabarren eskutik.

Bertsolariak:
- Manolo Arozena
- Juan Mari Lopez
- Urko Casado
- Manu Goiogana

Gai-jartzaile:
- Karlos Aizpurua

Bertso jarriak:
- Abel Zabala

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa. Sargia, 1, atzekaldea

Ordua? 19:30etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Maiatzaren 6tik 8ra

Zer? Segobriga eta Valeria erromatar hirietara bidaia Oiasso museoak antolatuta.

Prezioa? 350euro.

Izen-emateak:
- Telefonoz: 943639353
- Emailez: actividades.oiasso@irun.org

Apirilaren 28tik Maiatzaren 28ra

Zer? Iñaki Gonzalezen "Kollage ilustratua"

Teknika: Kollage-a, Ilustrazioa eta Serigrafía

Iñaki Gonzalez ´Fortun´ diseinatzaile grafikoa eta arte zuzendaria da, izaera askea eta ausarta duen sortzailea.

Bizipen pertsonaletan, garai bateko elkartze eta oroitzapen musikaletan oinarritzen da, eta etengabe egiten du lan, berebiziko gogo eta ardurarekin.

Irakurketa, zinema eta komikizale amorratua, afizioek eragin nabarmena dute bere sorkuntzetan. Formak eraldatzen ditu etengabe, eta artistak gogoan duen musika inspiratzailearen erritmoan nahasten eta irudikatzen ditu.

Non? Kabigorrin.

Prezioa? Doako sarrera.

Maiatzak 6

Zer? Fred Wesley, Sky beats kontzertua Irun Zuzenean ekimenaren barruan antolatua.

Fred Wesley ezaguna da James Brown-ekin egindako lanagatik batez ere. Harekin diseinatu zuen sekulako eragina izan zuen funk soinua. Freden kideek belaunaldiko tronboi jotzaile handienetakotzat hartu dute eta, gainera, funk musikaren egile eta moldatzaile handienetako bat da.

Non? Café Irunen.

Ordutegia? 20:00tan.

Prezioa? 15 euro aldez aurretik / 20 euro leihatilan.

Caser Anaka

Egoiliarrei egokitutako jarduerak eta ariketak eskaintzen dituzte Caser Anakan. Haien behar fisiko edo kognitiboen arabera antolatzen dituzte.

1. Gym Alzheimer: errehabilitazio kognitibora bideratutako jarduera fisikoa da. Oinarrizko mugimenduen bidez, estimuluak eskaintzen dira, parte hartzaileak adi egon daitezen, narriadurak ekiditeko.

Siel Bleuk gidatzen du jarduera, astean behin. Ordu beteko edo ordu eta laurdeneko iraupena izaten du. Hamar laguneko taldeak hartzen ditu gehienez.

2. Mugikortasun Murriztuko Gimnasia: gurpil-aulkietan dauden pertsonei zuzendutako jarduera da, bereziki. Enborreko ariketak egiten dira, mugikortasunaren galera saihesteko eta parte hartzaileei bizitza ahal bezain beste errazteko.

Astean behin egiten dute jarduera, ordu eta erdiz. 20 laguneko taldeak parte hartzen du, gehienez.

3. Musikoterapia: musikaren bidez arnas ariketak egiten dituzte. Putz egiten dutenean, musika entzuten da. Horrek pizgarri gisa funtzionatzen du. Parte hartzaileek abestiak hautatzen dituzte, eta Gabonetan kontzertu bat egiten dute.

4. Errehabilitazio funtzionala (eragilea eta sentsoriala): Jon Garin fisioterapeutak ariketak prestatzen dizkie, ez dezaten mugikortasuna galdu. Janet Carreño psikologoak estimulu sentsoriala lantzeko ariketak prestatzen dizkie.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM